

Gure balioekin bat eginez... esleitutako prezioak familia guztiak ordaintzeko kantitate egoki batean oinarrituko dira:

AISIALDI TALDEA →

	ASTELEHENETIK OSTEGUNERA	ASTEBURUAN ZEHAR
LEHENEGO ORDUA	7€	7€
BIGARREN ORDUA	Doainik	X
ORDU BAKOITZAREN JARRAIPENA (ORDUAK GEHITUZ)	2€	3€
ARRATSALDE OSOA 16:00-22:00	12€	14,5€
JANARIA	9€	12€
MERIENDA/URTEBETZEAK	5€	5€

HAURTZAINDEGI TALDEA →

	ASTEAN ZEHAR	ASTEBURUAN
GOIZ OSOA 09:00-15:00	18€	22€
ARRATSALDEA 16:00-22:00	18€	22€
EGUN OSOA	40€	50€
ORDU SOLTEAK	5,50€	7€

Umeak talde handian badatoz prezioa merkeagoa izango da, hala nola, urtebetetzeetan, jaunartzeak, bataioak, etab. Aldiz, abuztuan, gabon gauan, gabon zaharrean eta egun espezifikoenetan prezio desberdinak esleituko dira.

Hala nola, arratsalde osoa baldin badatoz, 12€ izan ezik, 10€ izango lirateke ume bakoitzeko. Hau da, 2€ merkeago izango litzateke talde handitan baldin badatozte.

FAMILIA UGARIAK

Familia ugariarentzat edo arazo ekonomikoak dituztenentzat laguntza ekonomiko mota desberdinak eskainiko zaizkie, zerbitzua errazteko.

Familia ugariak, familia ugarien txartela originala eskaini beharko digute familia ugaria direla bermatzeko. Eta arazo ekonomikoak dituztenentzat, era desberdinak erabiliko genituen hori ziurtatzeko eta gure zerbitzua merkeagoa izateko, ziurtagiri zein dokumentu beharrezkoak erabiliz.

IKASTAROAK

Horrez gain, haurraren zaintzari, metodologiari eta elikadurari buruzko ikastaroak emango dira, haurra modu hobeko eta seguruago batean zaindu nahi duten gurasoentzat.

Ikastaroen prezioa 80-120€ inguruan egongo litzateke prezioa, ikastaroaren, pertsonen eta beste hainbat elementuren arabera bariatuko litzateke.